

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	LAN BEREZIAK ETA ERREMATERAKOAK FATXADA TRANSAIREZTATUETAN	Iraupena	60
		Berariazkoa	
Kodea	UF1117		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Harri naturala		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Harri naturala eraikinetan jartzea	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Fatxada transaireztatuak muntatzea	Iraupena	230
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Fatxada transaireztatu lanak eta zuinketa prestatzea	Iraupena	50
	Aingurak eta azpiegitura eramailea muntatzea fatxada transaireztatuetarako		80
	Fatxada transaireztatu estaldurak muntatzea		40

A atala: GAITASUN-ERREFERENTEA

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1377_2 FATXADA TRANSAIREZTATUAK MUNTATZEA gaitasun-ataleko LB8, LB10 eta LB11 lanbide-burutzapenekin

B atala: AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Fatxada transaireztatu baten desjarraitasunetan (baoak, zokaloak, ertzak eta beste batzuk) erabilitako elementu bereziak (topaguneak, erremateak, harrerak) jartzeko teknika egokiak erabiltzea, fatxaden funtzionaltasuna ziurtatzeko (aireztapena, zubi termikorik eza, iragazgaitasuna), lan- eta ingurumen-segurtasuneko baldintzetan, eta ezarrita dagoen kalitatearekin.

E1.1 Fatxada transaireztatueta dauden elementu berezi nagusiak ezagutzea.

E1.2 Fatxada transaireztatueta dauden elementu berezi nagusiak jartzeko prozedura deskribatzea, kalitate- eta segurtasun-irizpide nagusiak ezagutuz, baita horiek jartzerakoan sor daitezkeen arazo eta akats nagusiak, kausak eta eraginak ere.

E1.3 Elementu berezi desberdinak jartzeko erabilitako baliabide nagusien erabilera deskribatzea, hartu beharreko segurtasun-neurriei lotuz, bereziki babes indibidual eta kolektiboko ekipamenduen erabilera.

E1.4 Fatxada transaireztatu baten muntaketari buruzko ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauden kasu praktikoko batean, eta obra-planoetatik abiatuz:

- Elementu berezien planoak ezagutzea, horiek interpretatuz eta fatxadan duten posizioa eta agindutako akabera identifikatuz.
- Elementu bereziak ainguraketa-azpisistemaren gainean jartzea, proiektuaren espezifikazioen arabera.
- Piezen kokapena egiaztatzea erabat egonkorak izateko, proiektuan ezarritakoaren arabera.
- Material desberdinak lotzeko sistema eta produktu desberdinak aplikatzea, horien ezaugarri fisiko-mekanikoen arabera.
- Segurtasun-arauak aplikatzea.
- Fatxadan ur-sarreraren aurrean estankotasuna bermatzen duten elementuak identifikatzea.

A2: Fatxada aireztatu sistema osatzen duten elementu desberdinetan zigitatzeko, errematatze eta garbitzeko eragiketarako egitea, behin betiko eta erabat errematatu arte.

E12.1 Zigitatze- eta garbiketa-produktu desberdinak beren aplikazioaren arabera sailkatzea, horiek aplikatzerakoan eta manipulatzekoan eta biltegiatzerakoan kontuan izan behar diren arriskuak eta segurtasun-neurriak zehaztuz.

E12.2 Fatxada transaireztatu sistema gainean behin-behineko edo behin betiko haren zati izango diren elementu osagarriak eta errematekoak (aireztapen-saretak, euspen-elementuak, elementu funtzionalak eta/edo estetikoak, edo antzekoak) jasotzeko eta zigitatzeko jarraitu behar den prozesua deskribatzea.

E12.3 Jardun-plan bat deskribatzea, bertan modu sekuentzian adieraziz eman beharreko pauso guztiak, baita lan osagarriak eta errematekoak egiteko beharrezkoak diren produktuak, makinak, erremintak eta lanabesak ere.

E12.4 Esku-hartze nagusiak (junturak zigitatzea eta bestelakoak) onartzeko irizpideak adieraztea.

E12.5 Behar bezala zehaztutako kasu praktikoko batean, plano eta argibide tekniko batzuetatik abiatuta, horren helburua zigitatzea, garbitzea, junturen tratamendua eta lanen azken akaberarako beste tratamendu batzuk egitea izanik:

- Arazoak sor ditzaketen puntu eta zona kritikoak bereiztea planoan eta obraren argazkietan, horiei dagokien patologia adieraziz.
- Jardun-plan bat lantzea, esku-hartze desberdinak egingo diren ordena adieraziz.
- Lan bakoitzerako erabilitako erremintak, lanabesak eta produktuak prestatzea eta erabiltzea.
- Obraren lanari berari eta produktu desberdinen aplikazioari atxikitako arriskuak identifikatzea.
- Adierazitako juntura-tratamendua egitea.

- Saretak edo beste elementu berezi batzuk jartzea zehaztutako errematearekin.
- Fatxadaren garbiketa egitea.
- Lan guztien azken akaberaren maila egiaztatzea.

A3: Sistema transaireztatu desmuntatzea, biltegitratzeko edo lekualdatzeko, hori osatzen duten pieza eta elementu desberdinak behar bezala manipulatu.

EI3.1 Dagoeneko eraikita dagoen sistema batean estaldura-piezak eta/edo ainguraketa-elementu metalikoak ordeztzeko premia ezartzen duten segurtasun-irizpideak (nariadura fisiko-mekanikoa) aipatzea.

EI3.2 Piezak erretiratzeke eta ordeztzeko lanak ziurtasunez egiteko jarraitu beharreko prozedura deskribatzea eta aplikatzea.

EI3.3 Finkatzeko, ainguratzeko eta estaltzeko elementu desberdinak desmuntatzeko, manipulatzeko eta ondoren berriro muntatzeko beharrezkoak diren makinak, erremintak, lanabesak eta baliabide osagarriak zerrendatzea.

EI3.4 Prozesuaren zati bakoitzean dauden arriskuak identifikatzea, horiek minimizatzeke kontuan izan beharreko aurreneurriak adieraziz.

EI3.5 Langile batek baino gehiagok parte hartu behar duten piezen manipulazioa nola egiten den deskribatzea.

EI3.6 Ainguraketa-elementuetarako nahiz estaldura-piezetarako kontuan izan behar diren manipulazio- eta biltegitratze-irizpideak (eszentrikotasuna, pisua, hauskortasuna) aipatzea.

EI3.7 Fatxada transaireztatu bati buruzko ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauden kasu praktiko batean:

- Erroreak bereiztea: euspenekoak, estaldura-pieza batzuen desegokitasuna (kolore-diferentzia, itxura, testura eta beste batzuk), lautasun- eta plomatze-akatsak eta junturen arteko espazioa.
- Zehazten diren estaldura-piezak erretiratzea, horien manipulazio, garraio eta biltegitratzerako ezarritako argibideak eta prozedurak kontuan izanik.

Edukiak:

1. Elementu bereziak, erremateak eta azken akabera jartzeko lan osagarriak.

- Elementu bereziak. Motak. Ezaugarriak.
- Jartzea: prozesu operatiboa:
 - Elementu berezien egiaztapena: posizioa, eskariak, akaberak.
 - Ainguraketa-azpisistemaren gainean jasotzea.
 - Piezen kokapena: egonkortasuna plano horizontalean, bertikalean eta inklinatuan.
 - Materia desberdinen arteko lotura. Teknikak eta produktuak.
 - Segurtasun-arauak aplikatzea.
 - Lanen egiaztapena: posizioa, egonkortasuna, estankotasuna.
- Elementu osagarriak eta errematekoak: Motak. Ezaugarriak. Jartzea: prozesu operatiboa.
- Beste eraikuntza-elementu batzuen kontrako erremateak.
- Aireztapen-saretak jartzea.

2. Fatxada transaireztatu erremateko eta azken akaberako eragiketak.

- Junturen zigilatzea eta tratamendua:
 - Produktuak.
 - Aplikazioa.
 - Egiaztapenak.
- Erremateak:
 - Motak: elementu funtzionalak eta dekoraziokoak.
 - Jartzea.
 - Egiaztapenak.
- Garbiketa-sistemak:
 - Produktuak. Espezifikazio teknikoak.
 - Prestakuntza eta aplikazioa.
- Ekipamenduak, erremintak, materialak eta produktuak. Manipulazioa eta biltegitratzea.
- Segurtasun-arauak
- Azken akabera. Azken egiaztapenak.
- Hondakinak: jasotzea, erretiratzea.

3. Fatxada transaireztatu elementuak ordeztzea.

- Ordeztu beharreko piezak. Patologiak: ez onartzeko irizpideak.
- Manipulatzeko, altxatzeko eta garraiatzeko baliabide osagarriak.
- Desmuntaketa-prozesua: prozedura, ekipoak eta erremintak, segurtasun-arauak. Piezen erretiratzea.
- Ordeztzeko piezen definizioa. Lantzeko aginduak.
- Pieza berrien hautaketa, metaketa eta biltegitratzea.
- Pieza berriak muntatzeko prozesua: jartzeko prozedura, ekipoak eta erremintak, segurtasun-arauak.
- Egiaztapen partzialak eta azken egiaztapenak.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Harri naturala eraikinetan jartzea